eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco | Euskal Herriko Unibertsitatea

| USaP | PAU |
|---|---|
| 2024/25 | 2024/25 |
| AZTERKETA EREDUA | MODELO DE EXAMEN |

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

# ESPAINIAKO HISTORIA

# *HISTORIA DE ESPAÑA*

---

## AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK

**Ezaugarri orokorrak:**

- Idatzizko proba honek 4 ariketa izango ditu.
- 1. galdera: derrigorrezkoa da eta ez du hautazkotasunik izango.
- 2., 3., eta 4. galderak: bi aukeren artean bakarra aukeratu behar duzu (adibidez: 2.1, 3.2, 4.1).

**Beste ohar batzuk:**

- 2. eta 3. Galderak: enuntziatu zehatzera mugatu behar zara, eta gehienez 150 hitzetan erantzun galdera bakoitzean.
- 4. Galdera: aukeratu eta iruzkindu beharko duzu proposatutako testu bietako bat.

**Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak:**

1. galdera (2p):
   a) Testuan sartutako akatsen identifikazioa: 1p.
   b) Akatsen zuzenketa (soilik zuzen idatzi): 1p.

2. eta 3. galderak (2p galdera bakoitza):
   a) Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 0,75p.
   b) Kontzeptuen erabilera egokia eta berariazko hiztegia: 1p.
   c) Gaiaren testuingurua: 0,25p.

4. galdera – Testu-iruzkina (4p):
   a) Testuaren kokapena (testu mota, egilea, jasotzaileak, garaia): 0,5p.
   b) Testuaren analisia: testuaren oinarrizko ideiak nabarmentzea: 1p.
   c) Testuinguruan jartzea: testua bere prozesu historikoan ezartzea: 2p.
   d) Testuaren garrantzia: kokatzen den aldi historikoa ulertzeko testu horrek duen garrantzia adieraztea: 0,5p.

**Zuzentasun ortografikoa:**

Beharrezkoa da idatzizko ekoizpenen zuzentasun ortografikoari arreta jartzea. Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu 1 arte, eta guztira probaren azken notaren % 10 izango da gehienez.

## INSTRUCCIONES PARA EL EXAMEN

**Características generales:**

- Esta prueba escrita constará de 4 ejercicios.
- Pregunta 1: obligatoria y no tiene opcionalidad.
- Preguntas 2, 3 y 4: debes elegir entre una de las dos opciones (por ejemplo: 2.1, 3.2, 4.1)

**Otras observaciones:**

- Preguntas 2 y 3: debes ceñirte al enunciado concreto y responder en un máximo de 150 palabras en cada pregunta.
- Pregunta 4: deberás elegir y comentar uno de los dos textos propuestos.

**Criterios específicos de corrección y calificación:**

Pregunta 1 (2p):

a) Identificación de los gazapos introducidos en el texto: 1p.
b) Corrección de los gazapos (escribirlos correctamente): 1p.

Preguntas 2 y 3 (2p cada pregunta):

a) Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: 0,75p.
b) Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: 1p.
c) Contextualización del tema: 0,25p.

Pregunta 4 – Comentario de texto (4p):

a) Localización del texto (tipo de texto, autor, destinatarios, época): 0,5p.
b) Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: 1p.
c) Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: 2p.
d) Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: 0,5p.

**Corrección ortográfica:**

Es necesario prestar atención a la corrección ortográfica de las producciones escritas. Cada error ortográfico se penalizará con 0,1 puntos, hasta un máximo de 1p, suponiendo en total un máximo de un 10% de la nota final de la prueba.

**1.go GALDERA (2 puntu): Iturrien hausnarketa kritikoa.**

Zure institutuko aldizkarian sartu berri zara, dibulgazio historikoaren ataleko arduradun gisa. Ikaskideek esan dizute ChatGPT bidez egindako testuren bat dutela, baina zalantzan jartzen dutela testuaren zehaztasuna. Beraz, honako testu hau berrikusteko eskatu dizute, **balizko akatsak antzeman eta zuzentzeko**. 5 dira bilatu beharreko akatsak:
OHARRA: Benetako frogan, hemen letra lodiz agertzen diren akatsak ikusiko dituzte; tatxatuta dagoena Batxilergoko irakasleek ariketaren funtsa ulertzeko baino ez da jarri. Ikasleek akats horiek identifikatu beharko dituzte eta zuzen idatzi. Ariketa honetan gaitegi ofizialeko testuen zatiak baino ez dira agertuko (eta iturriaren erreferentzia ere emango zaie).

*"...~~Alfontso XII.a~~ (**Alfontso XIV.a**) Jainkoaren graziaz Espainiako Errege konstituzionala denak honako hau ikusi eta ulertzen duzuen guztioi zera jakinarazten dizue: egun bilduta jarraitzen duten Erresumako Gorteekin batera eta haiekin bat etorriz, honako hau agindu eta berretsi dudala: Espainiako ~~Monarkiaren~~ (**Errepublikaren**) Konstituzioa*

*11. art. Erlijio ~~Katoliko~~ **(Anglikano)**, Apostoliko eta Erromatarra Estatuaren erlijioa da. Nazioa haren kultua eta haren ministroak mantentzera behartuta dago. Espainiako lurraldean ezingo da inor molestatu ez bere iritzi erlijiosoengatik ez bere kultua praktikatzeagatik, baldin eta kristau moralari zor zaion errespetua gordetzen bazaio. ~~Ez dira baimenduko, ordea, Estatuaren erlijioarenak ez diren jendaurreko zeremonia eta adierazpenak.~~ (...) (**Erlijio orotako zeremonia eta adierazpenak baimenduak izango dira**).*

*13. art. Espainiar orok du eskubidea:*
*Bere iritzi eta ideiak askatasunez adierazteko, ahoz, idatziz, inprimaketaz edo antzeko beste prozedura batez baliatuz eta aurretiko zentsurari lotu gabe. Bakean biltzeko. Giza bizitzaren xedeetarako elkartzeko (...)."*
*~~Madrilen~~ (**Lisboan**), 1876ko ekainaren 30ean.*

Iturria: 7. TESTUA. 1876KO KONSTITUZIOA (1876-06-30)

**Erantzun bi atal hauei:**

- **1.1.- Identifikatu eta idatzi 5 informazio okerrak (1 puntu)**
- **1.2.- Antzemandako 5 akats zuzen idatz itzazu. (1 puntu)**

**2. GALDERA (2 puntu): Proposatzen zaizkizun gertaera historiko BAT aukeratu eta identifikatu eta azaldu berau ERAGIN DUTEN KAUSA NAGUSIAK (gehienez 150 hitzetan):**
**IRAKASLEENTZAKO OHARRA: Ikasleek eskatutako epigrafe konkretuari erantzun behar diote.**

2.1. Lehenengo Karlistaldia. (3. GAIA. Foruak eta liberalismoa: Karlistadak eta foruak indargabetzeko prozesua (1833-1876); 1.go epigrafea).

2.2 Errestaurazioko sistemaren eta oposizioaren indarrak. (4. GAIA. Errestaurazioko sistema politikoa (1875-1923); 2. epigrafea).

**3. GALDERA (2 puntu): Proposatzen zaizkizun gertaera historiko BAT aukeratu eta identifikatu eta azaldu beronen ONDORIO NAGUSIAK (gehienez 150 hitzetan):**
**IRAKASLEENTZAKO OHARRA: Ikasleek eskatutako epigrafe konkretuari erantzun behar diote.**

3.1. Azken Karlistaldia eta foru-indargabetzea. (3. GAIA. Foruak eta liberalismoa: Karlistadak eta foruak indargabetzeko prozesua (1833-1876); 3. epigrafea).

3.2 Biurteko erradikal-zedista edo kontrarreformatzailea eta 1934ko urriko iraultza. (7. GAIA. Bigarren Errepublika: 1931ko Konstituzioa eta erreformak (1931-1936); 2. epigrafea).

**4. GALDERA (4 puntu): Testu iruzkina.**
Ondorengo bi testuetako BAT aukeratu eta egin honen azterketa kritikoa.

**4.1. 2. TESTUA. PERSIARREN MANIFESTUA (1814-04-12)**

JAUNA:
Antzinako persiarren ohitura zen erregea hiltzen zenean anarkiaz beteriko bost egun igarotzea, hilketa, lapurreta eta beste hainbat zorigaiztoren esperientziek hurrengo erregearekiko leialago izatera behartu zitzan. Espainia Berorren Maiestateari leial izateko, ez zuen behar halako saiakuntzarik zure gatibutasunak iraun duen sei urteetan. Berorren Maiestatea arbasoen tronura itzulita ikusteaz pozten diren espainiarretatik, begirunezko adierazpen hau Espainiako ordezkari-izaerarekin sinatzen dutenak dira (...). Monarkia absolutua (...) arrazoiaren eta adimenaren lana da: jainkoaren legearen, justiziaren eta Estatuaren funtsezko legeen mende dago: konkista-eskubidearen bitartez edo euren erregeak aukeratu zituzten lehen gizakien borondatezko menekotasunaren bitartez ezarri zen. Horregatik, subirano absolutuak ez du ahalmenik bere agintea arrazoirik gabe erabiltzeko (Jainkoak berak ere eduki nahi izan ez zuen eskubidea); horregatik izan da beharrezkoa botere subiranoa absolutua izatea, bere mendekoei denen interesekoa zaintzen duena agintzeko eta hori nahi ez dutenak obeditzera behartzeko (...).

Eskatu behar dugun erremedioa, gure botoak, eta gure probintzienak, paperean jarriz, Espainiako lege, foru, usadio eta ohituren araberakoa da. (...) Xede horrekin bil daitezela Gorteak handitasunez, eta antzinakoak egin ziren bezala (...): bertan behera utz daitezela Konstituzioaren ondorioak eta Cadizen xedatutako dekretuak, eta kontuan har ditzatela Gorte berriek euren deuseztea, injustizia eta desegokikeriak (...). Madrilen, 1814ko apirilaren 12an.

## 4.2. 9. TESTUA. FEDERICO ECHEVARRIAREN HITZALDIA LIBREKANBISMOARI ETA PROTEKZIONISMOARI BURUZ (1893-12-09)

Ez, hemen gertatzen den gauza bakarra zera da, Espainiaren eta Alemaniaren artean proiektuan den itun tamalgarriaren ondorioz, atzera botako dela, eta deseginik geldituko dela egungo aduana-zergen araubidea ezartzeko egindako lan handia. Eta jokabide horrek zoritxar handia ekarriko dio herrialdeari, dudarik gabe; ez bakarrik aurrekari zorigaiztoko bat ezarriko duelako, etorkizuneko edozein industria-ekimen hondatuko lukeena, baizik eta, orobat, zauri hilgarria eragingo liekeelako lantegiei; bai egungo muga- zergen araubidearen babesean altxatu direnei, halakoak baitira gehien-gehienak, baita lehendik altxatuak zirenetan egin diren erreforma eta zabaltze handiei ere. Eta industria- jarduera horren guztiaren heriotzak, ohar gaitezen, hauek guztiak harrapatuko lituzke: Labe Garaiak, galdaragintzako eta makinak egiteko instalazio berrietan: altzairu- ekoizpena; Talleres de Deusto, altzairu moldekatuak eta trakzio-makinak eta –materiala egiteko sailean; Aurrera, haren hodi-fundizio ezin garrantzitsuagoetan, altzairuzko manufakturetan; Talleres de Zorroza eta Talleres de Miraballes, zubigintzan, bagoigintzan, eraikuntzan eta galdaragintzan (...) eta beste asko eta asko, luze joko bailiguke orain denak aipatzeak. Ez aipatzeagatik, jaun-andreok, berebiziko garrantzia duten fabrika-proiektuak —izenik ezin dut eman—, 1892ko aduana-zergak jarraitzearen baitan baitago haiek gauzatzea edo ez.

Hain ondorio lazgarriak saihesteko, hainbesteko hondamena saihesteko, Bizkaia ez ezik Espainiako beste eskualde oso garrantzitsu batzuk ere hartuko bailituzke eta eragina izango bailuke nazio osoan, tinko eskatu behar diogu Gobernuari ez dadila urrundu araubidetik, ez dezala suntsitu halako modu zalapartatsu eta gupidagabean gaur egungo babes-sistema, eta, beraz, bazterrera utz dezala espainiar-alemaniar itun zentzugabe hori.

***Merkataritza Itunen kontrako mitin-protesta, Bilbon, 1893ko abenduaren 9an. Bilbon, 1894.***

**PREGUNTA 1 (2 puntos): Reflexión crítica de las fuentes.**

Acabas de entrar en la revista de tu instituto como responsable de la sección de divulgación histórica. Los compañeros te han comentado que disponen de algún texto realizado mediante ChatGPT, pero que dudan sobre su rigurosidad. De modo que te han solicitado la revisión del siguiente texto **para detectar y corregir posibles errores:**
NOTA: En la prueba real se verán los errores que aparecen aquí en negrita; lo que está tachado sólo se ha puesto para que los profesores de Bachillerato entiendan la esencia del ejercicio. Los alumnos y las alumnas deberán identificar estos errores y reescribirlos correctamente. En este ejercicio sólo aparecerán fragmentos de los textos del temario oficial (y también se les dará la referencia de la fuente).

*“~~Don Alfonso XII~~ (**Alfonso XIV**), por la gracia de Dios Rey constitucional de España, a todos los que la presente vieren y entendieren, sabed: Que en unión y de acuerdo con las Cortes del Reino actualmente reunidas, hemos venido en decretar y sancionar la siguiente Constitución de la ~~Monarquía~~ (**República**) española*

*Art. 11. La religión ~~Católica~~ (**Anglicana**), Apostólica, Romana es la del Estado. La Nación se obliga a mantener el culto y sus ministros. Nadie será molestado en el territorio español por sus opiniones religiosas ni por el ejercicio de su respectivo culto, salvo el respeto debido a la moral cristiana. ~~No se permitirán, sin embargo, otras ceremonias ni manifestaciones públicas que las de la religión del Estado~~. (...) (**Se permitirán ceremonias y manifestaciones públicas de todas las religiones**)*

*Art. 13. Todo español tiene derecho:*
*De emitir libremente sus ideas y opiniones, ya de palabra, por escrito, valiéndose de la imprenta o de otro procedimiento semejante, sin sujeción a la censura previa. De reunirse pacíficamente. De asociarse para los fines de la vida humana (...).*
*~~Madrid~~ (**Lisboa**), 30 de junio de 1876.*

*Fuente: TEXTO 7: CONSTITUCIÓN DE 1876 (30-06-1876)*

**Responde a estos dos apartados:**

**1.1.- Identifica y escribe 5 informaciones incorrectas (1 punto)**
**1.2.- Corrige los 5 errores detectados. (1 punto)**

**PREGUNTA 2 (2 puntos): Selecciona UNO de los acontecimientos históricos propuestos e identifica y explica LAS PRINCIPALES CAUSAS** del mismo **(máximo 150 palabras):**
**NOTA PARA EL PROFESORADO: El alumnado debe responder al epígrafe concreto al que se hace referencia.**

2.1. La primera guerra carlista. (primer epígrafe del TEMA 3. Fueros y liberalismo: las guerras carlistas y la cuestión foral (1833-1876).

2.2. Las fuerzas del sistema y de la oposición (segundo epígrafe del TEMA 4. El sistema político de la Restauración (1875-1923).

**PREGUNTA 3 (2 puntos): Selecciona UNO de los acontecimientos históricos propuestos e identifica y explica LAS PRINCIPALES CONSECUENCIAS** del mismo **(máximo 150 palabras):**
**NOTA PARA EL PROFESORADO: El alumnado debe responder al epígrafe concreto al que se hace referencia.**

3.1. La última guerra carlista y la abolición foral. (tercer epígrafe del TEMA 3. Fueros y liberalismo: las guerras carlistas y la cuestión foral (1833-1876).

3.2. El bienio radical-cedista o contrarreformador y la revolución de octubre de 1934. (segundo epígrafe del TEMA 7. La II República: Constitución de 1931 y reformas (1931-1936).

**PREGUNTA 4 (4 puntos): Comentario de texto**.

Escoge UNO de los dos textos y realiza un análisis crítico del mismo.

**4.1. TEXTO 2: MANIFIESTO DE LOS PERSAS (12-04-1814)**

SEÑOR:
Era costumbre de los antiguos persas pasar cinco días de anarquía después del fallecimiento de su rey, a fin de que la experiencia de los asesinatos, robos y otras desgracias les obligase a ser más fieles a su sucesor. Para serlo España a V.M. no necesitaba igual ensayo en los seis años de su cautividad. Del número de los españoles que se complacen al ver restituido a V.M. al trono de sus mayores, son los que firman esta reverente exposición con el carácter de representantes de España (...).
La monarquía absoluta (...) es obra de la razón y de la inteligencia: está subordinada a la ley divina, a la justicia y a las reglas fundamentales del Estado: fue establecida por derecho de conquista o por la sumisión voluntaria de los primeros hombres que eligieron a sus Reyes. Así que el Soberano absoluto no tiene facultad de usar sin razón de su autoridad (derecho que no quiso tener el mismo Dios); por esto ha sido necesario que el poder soberano fuese absoluto, para prescribir a sus súbditos todo lo que mira al interés común, y obligar a la obediencia a los que se niegan a ella (...).

El [remedio] que debemos pedir, trasladando al papel nuestros votos, y el de nuestras provincias, es con arreglo a las leyes, fueros, usos y costumbres de España. (...) que a este fin se proceda a celebrar Cortes con solemnidad, y en la forma en que se celebraron las antiguas (...): que se suspendan los efectos de la Constitución, y decretos dictados en Cádiz, y que las nuevas Cortes tomen en consideración su nulidad, su injusticia y sus inconvenientes (…).
Madrid, 12 de abril de 1814.

### 4.2. TEXTO 9: DISCURSO DE FEDERICO ECHEVARRIA SOBRE EL LIBRECAMBISMO Y EL PROTECCIONISMO (9-12-1893)

No, aquí no ocurre otra cosa sino que por medio de tratados tan funestos como el hispano-alemán en proyecto, se va a echar abajo y deshacer toda una gran labor del régimen arancelario vigente; y semejante proceder causará una gran desventura al país, a no dudarlo; no sólo porque quedaría sentado un precedente fatal que acabaría con toda iniciativa industrial en lo futuro, sino también porque recibirían herida de muerte tanto las fábricas implantadas en su mayoría, casi en su totalidad, al amparo actual del régimen arancelario, como las grandes reformas y ampliaciones hechas en las anteriormente instaladas. Y la muerte de esa actividad industrial, entendedlo bien, alcanzaría a Altos Hornos en sus nuevas instalaciones de calderería y fabricación de maquinaria: a la producción de acero; a Talleres de Deusto en sus aceros moldeados y construcción de máquinas y material de tracción; a Aurrera en sus importantísimas fundiciones de tubos, sus manufacturas de acero; a Talleres de Zorroza y a los de Miravalles en sus construcciones de puentes, vagones, edificios y calderería (...) y a otras muchas, en fin, que sería prolijo enumerar en este momento. Y no os hablo, señores, de fábricas en proyecto de importancia extraordinaria que no me es lícito especificar ahora y cuya instalación depende de la continuación del arancel de 1892.

Para evitar tan desastrosos efectos, tan tremenda ruina que alcanzaría en iguales proporciones que a Vizcaya a otras importantísimas regiones de España, dejándose sentir su influencia en la nación toda, hemos de pedir enérgicamente al Gobierno que no se salga de lo prescrito, que no derrumbe tan atropellada y despiadadamente el actual régimen protector, y que deseche, por lo tanto, ese absurdo tratado hispano-alemán.

***Meeting-protesta contra los Tratados de Comercio celebrado en Bilbao el día 9 de diciembre de 1893*. Bilbao, 1894.**

## ESPAINIAKO HISTORIA / HISTORIA DE ESPAÑA

Maiatzaren 30eko 76/2023 dekretuan oinarrituta, beherago adierazten dira proba honetarako ezarri ditugun ebaluazio-irizpideak eta ezarritako konpetentzia-helburuak, dagozkien adierazleekin batera:

**1. Espainiako eta Euskal Herriko egungo historia osatzen duten prozesu garrantzitsuenak ezagutzea, eta gertaera politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko harremanak identifikatzea.**
Adierazleak:
• Garai historiko bakoitzeko ezaugarri ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak bereizten ditu, eta ezaugarri horiek elkarri nola eragiten dioten azaltzen du.
• Etapa historiko bakoitza laburbiltzen du, eta alderdi ekonomikoak, sozialak, politikoak eta kulturalak erlazionatzen ditu.
• Ulertzen du zer kontzeptu eta termino diren ekonomikoak, sozialak, politikoak... eta zer lotura duten arlo bereko beste batzuekin.
• Gertakari jakin baten aurrean dauden iturri eta egileen zeregina eta ikuspuntuak interpretatzen ditu.

**2. Oinarrizko kontzeptu, termino eta teknika historikoak behar bezala erabiltzea.**
Adierazleak:
• Kontzeptu eta termino nagusiak bere garaian kokatzen ditu eta behar bezala lotzen ditu..

**3. Lehen eta bigarren mailako iturri historikoak zorroztasunez eta objektibotasunez interpretatzea eta iruzkintzea, eta lehen eta bigarren mailako iturri historikoen eginkizuna baloratzea.**
Adierazleak:
• Lehen eta bigarren mailako iturriak komentatzen eta interpretatzen ditu, eta haien informazioa aurretiazko ezagutzekin erlazionatzen du.
• Zer iturri mota den eta zer ezaugarri nagusi dituen interpretatzen du.
• Iturri jakin bati dagokion garaia, egilea, hartzailea, asmoa eta abar identifikatzen ditu.
• Dokumentu jakin batek gertaera edo prozesu historiko baten ezagutzari egiten dion ekarpena ondorioztatzen du.
• Aztertutako garai historiko bakoitzean agertzen diren kontzeptu eta termino historiko nagusiak definitzen ditu.
• Iturri historikoak aztertzeko prozesua ikusita, ulertzen du ezagutza historikoa etengabe berrosatzen ari dela.
• Gertaera jakin baten aurrean, iturri eta autore desberdinen zeregina eta ikuspuntuak interpretatzen ditu.

**4. Gertaera eta prozesu historiko esanguratsuen kausak eta ondorioak identifikatzea, haien arteko loturak ezartzea eta gertaera sozialek dakarten kausalitate anitza ezagutzea.**
Adierazleak:
• Gertaera eta prozesu historikoak eta sozialak eragiten dituzten kausak identifikatzen eta

sailkatzen ditu.
• Gertaera edo prozesu historiko garrantzitsu batean eragina duten faktoreetako batzuk identifikatzen ditu, horien izaera zehazten du eta haien arteko erlazioren bat ezartzen du.
• Gertaera eta prozesu historiko baten ondorio batzuk zehazten ditu, eta epe labur, ertain eta luzean gertatzen direnak bereizten ditu.
• Ondoz ondoko gertaera edo egoera historikoen arteko kausa-efektu erlazioen kateak ezartzen ditu.

**5. Irakasgaiaren edukiak egoki, ortografia-zuzentasunez, zorroztasunez eta irakasgaiaren berariazko hiztegia erabiliz adieraztea eta komunikatzea.**
<u>Adierazleak</u>:
• Informazioa argi eta txukun aurkezten du, arloko berariazko hiztegia erabilita.
• Zuzenketa ortografikoa, zorroztasuna eta materiaren berariazko hiztegiaren erabilera duten idazkiak egiten ditu.
• Adierazpen-modu egokia hautatzen du, edukiaren eta hartzailearen arabera.

**6. Gaur egungo gizartean dauden gai garrantzitsuei eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiaren iragan historikoarekin zerikusia dutenei buruzko norberaren ikuspuntuak arrazoitzea.**
<u>Adierazleak</u>:
• Euskal Herriko eta Espainiako gizartearen gaur egungo gaiei buruz dituen ikuspuntuak azaltzen ditu, arrazoituta, idatzietan.
• Euskal eta espainiar gizarteetan dagoen aniztasuna identifikatzen eta errespetatzen du.
• Giza eskubideak bizikidetzarako oinarrizko esparrutzat hartzen ditu; Euskal Autonomia Erkidegoko oraintsuko eta egungo historian giza eskubideak nola urratu diren baloratzeko erabiltzen ditu.

**Zuzentasun ortografikoa:**
Beharrezkoa da idatzizko ekoizpenen zuzentasun ortografikoari arreta jartzea. Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu1 arte eta, guztira, probaren azken notaren %10eko murrizketa suposatuko du gehienez.

**Ebaluatzaileek lehen aipatutako gaitasunak kalifikatzeko kontuan hartu beharreko irizpide-orientazioak** (irizpide hauek orientagarriak dira ebaluatzaileentzat; guztiak ez dira nahitaezkoak, gainera, hauen aplikazioan izan dezaketen egokitasuna ariketa bakoitzaren tipologiaren araberakoa izan daiteke):

**1. Informazioaren zehaztasuna eta garrantzia:**
- **Zehaztasuna**: Erantzunak dagokion gertaerari dagozkion arrazoi edota ondorio historiko zuzenak eta egokiak jaso behar ditu.
- **Garrantzia**: Aipatutako kausek edota ondorioek zuzeneko lotura izan behar dute gertaera historikoarekin, garrantzirik gabeko informazioa edo informazio tangentziala sartzea saihestuz.

**2. Testuinguru historikoa ulertzea:**
- **Testuingurua**: Ikasleak gertaeren testuinguru soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala ulertzen duela erakutsi behar du.
- **Epe laburreko eta luzeko kausalitatea**: Ikaslea berehalako kausak (koiunturalak) eta egiturazkoak (epe luzekoak) bereizteko gai den ebaluatu behar da, azterketa sakonagoa erakutsiz.

**3. Aztertzeko eta justifikatzeko gaitasuna:**
- **Zergatien azalpena**: Ikasleak ez ditu kausak bakarrik aipatu behar, behar bezala azaldu behar ditu, bakoitzak gertakarian nola eragin zuen zehaztuz.
- **Kausazko erlazioak**: Ikasleak kausen arteko konexio argiak ezar ditzakeen ebaluatzea, horien arteko interakzioak edo hierarkiak identifikatuz (adibidez, kausa primarioak eta sekundarioak).
- **Epe laburra eta luzea**: Ikaslea berehalako ondorioak eta epe luzekoak bereizteko gai den ebaluatzea, baita horien inpaktua ere, tokikoa edo globala, prozesu historikoen ulermen sakona adierazten duena.
- **Ondorio zuzenak eta zeharkakoak**: Ikasleak efektu zuzenak (berehalakoak eta begi-bistakoak) eta zeharkakoak (denborarekin azaleratzen direnak edo beste esparru batzuetan eragiten dutenak) identifika ditzakeen baloratzea.

**4. Ebidentzia historikoaren erabilera:**
- **Gertaera edo adibide zehatzak aipatzea**: Ikasleak bere azterketa ebidentzia historiko espezifikoarekin laguntzen duen baloratzea, hala nola datak, pertsonaiak, erabaki politikoak eta abar.
- **Lehen edo bigarren mailako iturriak**: Ikasleak dokumentu edo iturri historiografikoen erreferentziak integratzeko duen gaitasuna ebaluatzea.

**Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpide espezifikoak (ikasleen azterketan sartzeko)**

Lehenengo 3 ariketetan 2 puntu emango dira gehienez, eta laugarren ariketan, testuaren iruzkinean, 4 puntu emango dira gehienez; beraz, azken nota 0 eta 10 puntu artekoa izan daiteke. Lortutako azken notaz gain, zati bakoitzean lortutako nota ere agertu behar da.

1. Lehenengo ariketaren kalifikazioa irizpide hauen araberakoa izango da:
   a. Testuan sartutako 5 akatsak identifikatzeko gaitasuna: puntu 1, gehienez.
   b. Sartutako 5 akatsak zuzen berridaztea: puntu 1, gehienez.

   2.- Bigarren ariketaren kalifikazioa irizpide hauen araberakoa izango da:
   a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 0,75 puntu, gehienez.
   b. Kontzeptuen erabilera egokia eta berariazko hiztegia: puntu 1, gehienez.
   c. Gaiaren testuinguru laburra: prozesu historikoarekiko harremana: 0,25 puntu, gehienez.

   3.- Hirugarren ariketaren kalifikazioa irizpide hauen araberakoa izango da:
   a. Galdetzen denari egokitzeko gaitasuna: 0,75 puntu, gehienez.
   b. Kontzeptuen erabilera egokia eta berariazko hiztegia: puntu 1, gehienez.
   c. Gaiaren testuinguru laburra: prozesu historikoarekiko harremana: 0,25 puntu, gehienez.

   4. Laugarren ariketaren kalifikazioa (testu-iruzkina) irizpide hauen araberakoa izango da:
   a. Testuaren kokapena: testu mota, egilea, hartzaileak eta garaia: 0,5 puntu, gehienez.
   b. Testuaren azterketa: testuaren funtsezko ideiak nabarmentzen ditu: puntu 1, gehienez.
   c. Testuingurua: testua bere prozesu historikoan kokatzen du: gehienez 2 puntu.
   d. Testuaren garrantzia: kokatuta dagoen aldi historikoa ulertzeko duen garrantzia nabarmentzen du: 0,5 puntu, gehienez.

   **Zuzentasun ortografikoa:**
   Beharrezkoa da idatzizko ekoizpenen zuzentasun ortografikoari arreta jartzea. Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu1 arte eta, guztira, probaren azken notaren %10eko murrizketa suposatuko du gehienez.

   <u>Eskema hau proban agertuko da, ikasleek honen arabera erantzun diezaioten probari</u>.

En base al Decreto 76/2023, de 30 de mayo de 2023 se detallan a continuación los criterios de evaluación y los objetivos competenciales que se establecen, con sus correspondientes indicadores, para esta prueba:

**1. Conocer los procesos más relevantes que configuran la historia española y vasca contemporánea, identificando las relaciones entre hechos políticos, económicos, sociales y culturales.**

Indicadores:

• Distingue las características económicas, sociales, políticas y culturales en cada época histórica y explica cómo estas características se influyen mutuamente.

• Resume/sintetiza cada una de las etapas históricas relacionando los aspectos económicos, sociales, políticos y culturales.

• Comprende qué conceptos y términos son económicos, sociales, políticos... y los relaciona con otros de su mismo campo.

• Interpreta el papel y puntos de vista de las diferentes fuentes y autores y autoras ante un hecho concreto.

**2. Utilizar adecuadamente los conceptos, términos y técnicas históricos básicos.**

Indicadores

• Sitúa los conceptos y términos principales en su época y los relaciona correctamente con la misma.

**3. Interpretar y comentar con rigor y objetividad fuentes históricas primarias y secundarias y valorar el papel de las fuentes históricas primarias y secundarias.**

Indicadores

• Comenta e interpreta fuentes primarias y secundarias, relacionando su información con los conocimientos previos.

• Interpreta el tipo de fuente de que se trata y sus características principales.

• Identifica la época a la que se refiere una fuente dada, su autor, destinatario, intención, etc.

• Deduce la contribución de un determinado documento al conocimiento de un hecho o proceso histórico.

• Define los conceptos y términos históricos principales que aparecen en cada época histórica estudiada.

• A la vista del proceso de análisis de las fuentes históricas, comprende que el conocimiento histórico está en constante reelaboración.

• Interpreta el papel y puntos de vista de las diferentes fuentes y autores ante un hecho concreto.

**4. Identificar las causas y consecuencias de hechos y procesos históricos significativos estableciendo conexiones entre ellas y reconociendo la causalidad múltiple que comportan los hechos sociales.**

<u>Indicadores</u>

• Identifica y clasifica las diferentes causas que provocan hechos y procesos históricos y sociales.

• Identifica algunos de los factores que influyen en un hecho o proceso histórico relevante, determinando su naturaleza y estableciendo alguna relación entre ellos.

• Determina algunas consecuencias de un hecho y proceso histórico y distingue entre las que se producen a corto, medio y largo plazo.

• Establece cadenas de relaciones causa-efecto entre diferentes hechos o situaciones históricas sucesivas.

**5. Expresar y comunicar los contenidos de la materia de forma adecuada, con corrección ortográfica, rigor y uso del vocabulario específico de la materia.**

<u>Indicadores</u>

• Presenta información clara y ordenadamente, utilizando el vocabulario específico del área.

• Elabora escritos con corrección ortográfica, rigor y uso del vocabulario específico de la materia.

• Selecciona la forma de expresión adecuada en función del contenido y destinatario.

**6. Argumentar fundadamente los puntos de vista propios sobre cuestiones relevantes presentes en la sociedad actual y las relacionadas con el pasado histórico del País Vasco y de España.**

<u>Indicadores</u>

• Expone razonadamente en escritos sus puntos de vista sobre cuestiones actuales de la sociedad vasca y española.

• Identifica y respeta el pluralismo existente en las sociedades vasca y española.

• Reconoce los derechos humanos como marco básico para la convivencia; los utiliza para valorar las situaciones de vulneración de los mismos en la historia reciente y actual del País Vasco.

**Corrección ortográfica:**

Es necesario prestar atención a la corrección ortográfica de las producciones escritas. Cada error ortográfico se penalizará con 0,1 puntos, hasta un máximo de 1 punto, suponiendo en total un máximo de un 10% de penalización sobre la nota final de la prueba.

**Orientación de criterios a tener en cuenta por los evaluadores para la calificación de las competencias mencionadas anteriormente** (estos criterios son más bien a título orientativo para los evaluadores; todos no son necesariamente obligatorios ya que, además, su pertinencia en la aplicación o no puede depender de la tipología de cada ejercicio)**:**

**1. Precisión y relevancia de la información:**

**-Exactitud**: La respuesta debe incluir causas y/o las consecuencias históricas **correctas** y **pertinentes** al evento en cuestión.

-**Relevancia**: Las causas y/o consecuencias mencionadas deben estar **directamente relacionadas** con el evento histórico, evitando la inclusión de información irrelevante o tangencial.

**2. Comprensión del contexto histórico:**

**-Contextualización**: El estudiante debe demostrar comprensión del **contexto social, político, económico y cultural** en que ocurrieron los hechos.

**-Causalidad a corto y largo plazo**: Se debe evaluar si el estudiante es capaz de distinguir entre causas y/o consecuencias **inmediatas** (coyunturales) y **estructurales** (de largo plazo), mostrando un análisis más profundo.

**3. Capacidad de análisis y justificación:**

**-Explicación de las causas**: El estudiante no solo debe mencionar las causas, sino **explicarlas** adecuadamente, detallando cómo cada una influyó en el evento.

**-Relaciones causales**: Evaluar si el estudiante puede establecer **conexiones claras** entre las diferentes causas, identificando interacciones o jerarquías entre ellas (por ejemplo, causas primarias y secundarias).

**-Corto y largo plazo**: Evaluar si el estudiante es capaz de distinguir entre consecuencias **inmediatas** y **a largo plazo**, así como su impacto, local o global, lo que denota una comprensión profunda de los procesos históricos.

**-Consecuencias directas e indirectas**: Valorar si el estudiante puede identificar tanto efectos **directos** (inmediatos y obvios) como **indirectos** (que emergen con el tiempo o afectan otros ámbitos).

**4. Uso de evidencia histórica:**

**-Citación de hechos o ejemplos concretos**: Valorar si el estudiante apoya su análisis con **evidencia histórica específica**, como fechas, personajes, decisiones políticas, etc.

**-Fuentes primarias o secundarias**: Evaluar la habilidad del estudiante para **integrar referencias** a documentos o fuentes historiográficas.

**Criterios específicos de corrección y calificación (para incluir en el examen del alumnado)**

Los primeros 3 ejercicios se puntuarán hasta un máximo de 2 puntos y el cuarto ejercicio, el comentario de texto, se puntuará hasta un máximo de 4 puntos, con lo que la nota final podrá oscilar entre 0 y 10 puntos. Además de la nota final obtenida, debe figurar la nota obtenida en cada parte.

1. La calificación del primer ejercicio se ajustará a los siguientes criterios:

a. Capacidad para identificar los errores introducidos en el texto: hasta 1 punto.

b. Correcta redacción de la corrección de los errores introducidos: hasta 1 punto.

2.- La calificación del segundo ejercicio se ajustará a los siguientes criterios:

a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: hasta 0,75 puntos.

b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: hasta 1 punto.

c. Breve contextualización del tema: relación con el proceso histórico: hasta 0,25 puntos.

3.- La calificación del tercer ejercicio se ajustará a los siguientes criterios:

a. Capacidad para ajustarse a lo que se pregunta: hasta 0,75 puntos.

b. Uso adecuado de los conceptos y vocabulario específico: hasta 1 punto.

c. Breve contextualización del tema: relación con el proceso histórico: hasta 0,25 puntos.

4. La calificación del cuarto ejercicio (comentario de texto) se ajustará a los siguientes criterios:

a. Localización del texto: tipo de texto, autor, destinatarios y época: hasta 0,5 puntos.

b. Análisis del texto: resalta las ideas fundamentales del texto: hasta 1 puntos.

c. Contextualización: encuadra el texto en su proceso histórico: hasta 2 puntos.

d. Importancia del texto: destaca su importancia para comprender el período histórico en el que está inscrito: hasta 0,5 puntos.

**Corrección ortográfica:**

Es necesario prestar atención a la corrección ortográfica de las producciones escritas. Cada error ortográfico se penalizará con 0,1 puntos, hasta un máximo de 1p, suponiendo en total un máximo de un 10% de la nota final de la prueba.

Este esquema figurará en la prueba para que los y las estudiantes se atengan a él.